



# Indarkeria matxistari aurre egiteko estatu-estrategia 2022tik 2025era

## Irakurketa errazeko bertsioa

Dokumentu hau  
Gobernuaren Ordezkaritzarena da  
genero-indarkeriaren aurka.



Irakurketa errazera moldatutako testua  
eta Irigarritasun Kognitiboaren Espainiako Zentroak baliozkotuta.  
Inclusion Europe-ren jarraibideak  
eta UNE 153101 EX araua.



## Aurkibidea

<b>1. Irakurtzen hasi aurretik.....</b>	<b>3</b>
<b>2. Indarkeria matxistei aurre egiteko estatu-estrategia .....</b>	<b>4</b>
Zeinek hartu du parte Estatu-estrategian? .....	5
<b>3. Estatu-estrategiaren helburuak .....</b>	<b>6</b>
<b>4. Estatu-estrategiaren printzipioak .....</b>	<b>8</b>
1. Giza eskubideak .....	9
2. Eredu feminista eta parte-hartzea .....	9
3. Desberdintasun eta ezaugarri ezberdinak .....	10
4. Arduraduna.....	11
5. Konponketa .....	11
6. Estatu-estrategia nola betetzen den azaltzea.....	12
7. Eskumenak errespetatzea .....	12
8. Finantza konpromisoa.....	12
<b>5. Estatu-estrategiaren neurriak .....</b>	<b>13</b>
1. gaia Ardurak eta betebeharrak.....	13
1. gaiko neurri garrantzitsuak.....	14
2. gaia Sentsibilizatzea, prebenitzea eta ikustea .....	15
2. gaiko neurri garrantzitsuak.....	17
3: gaia Babesa, segurtasuna, arreta eta konponketa.....	18
3. gaiko neurri garrantzitsuak.....	18
4: gaia Koordinazioa. ....	19
4. gaiko neurri garrantzitsuak.....	20
<b>Glosarioa.....</b>	<b>21</b>



# 1. Irakurtzen hasi aurretik

---

Dokumentu honetan ulertzeko zailak diren hitzak

## **letra lodiz**

eta **laranja ilun kolorez** markatuak aurki ditzakezu.

Hitz hauek

honetako **glosa** batean azaltzen dira edo dokumentuaren barruan.

Dokumentuaren bukaeran hitz zail guzti hauek dituzu alfabetoaren arabera ordenatuta, hau da, A letratik Z letrara arte glosarioa deituriko atal batean.

Glosarioan aurkibide bat daukazu hitz zail bakoitza zer orrialdeetan dagoen jakiteko.

Irakurketa errazeko definizio batzuk

Diccionario Fácil proiektukoak dira:

[www.diccionariofacil.org](http://www.diccionariofacil.org)

## **Glosa**

Dokumentuaren alde batean jartzen den azalpen bat da.



## 2. Indarkeria matxistei aurre egiteko estatu-estrategia

---

Dokumentu hau

Espainiako Gobernuaren strategiaren laburpena da,

### **Indarkeria matxistei aurre egiteko Estatu-estrategia 2022 – 2025**

deiturikoa.

Aurrerantzean,

Estatu-estrategia deituko diogu.

Estatu-estrategia bat herrialde batek  
egiten duen plana da zerbait lortzeko.

Estrategia hau

2022 eta 2025 urteen bitartean

bete behar da Espainian.

Estrategia honek jarduketak proposatzen ditu

**indarkeria matxistei** aurre egiteko,

hau emakume edo neska bati

gizon batek egiten dion mina da.

Indarkeria matxista

fisikoa, sexuala, psikologikoa edo ekonomia izan daiteke.



## Zeinek hartu du parte Estatu-estrategian?

---

Estatu-estrategia

**Genero-indarkeriaren aurkako  
Gobernuaren Delegazioak** egin du

honako hauen kolaborazioarekin:

- Autonomia-erkidegoak.
- Ceuta eta Melilla.
- Ministerioak.
- Espainiako Udalerrien Federazioa,  
hiri eta herrien erakundeak  
ordezkatzen dituena.
- Emakumearen aurkako  
Indarkeriaren Estatuko Behatokia.
- Enpresa eta sindikatu  
erakundeak.  
Sindikatu bat enpresaburuen aurrean  
eskubideak babesten dituzten  
langileen elkarte bat da.
- Gizon eta emakumeen arteko  
eskubide eta aukera berdintasuna  
defendatzen duen gizarte-mugimendua.
- Herritarrak.

### Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Delegazioa

Gobernuari emakumeen  
aurkako indarkeriari  
aurre egiteko  
Gobernuari politikak  
proposatzeaz arduratzen  
den erakundea da.



### 3. Estatu-estrategiaren helburuak

---

Estatu-estrategia Espainian

#### **indarkeria matxistak**

ezabatzen lagundu nahi duen plana da.

Horretarako, honako hauetan laguntzeko ekintzak proposatzen dituzte:

- **Indarkeria matxistak** ekiditea.
- Sentsibilizatzea.
- Biktima eta bizirauleak artatzea.
- Indarkeria hauek eragiten dituzten kalteak **konpontzea**.

#### **Konponketa**

Kalte edo min bat konpentsatzea.

Guzti hau lortzeko

Estatu-estrategiak honako

5 helburu hauek ditu:

- 1.** Gizon eta emakumeek **indarkeria matxistei** buruz gehiago jakitea eta ezabatzen laguntzea.
- 2. Indarkeria matxista** kasu gutxiago egotea.



**3.** Honako tresna hauek hobetzea eta aldatzea:

- Babesa.
- Segurtasuna.
- Biktimentzako laguntza.
- Eta **indarkeria matxistaren** biktimei kalteak**konpontzea**.

**4.** Instituzioak indarkeria matxistaren

biktima

eta bizirauleekin

dituzten betebeharrak betetzen laguntzea.

**5.** Emakumeen erakundeek,

erakunde **feministek**



eta giza eskubideen  
erakundeek  
Estatu-estrategian parte hartzea  
eta hau betetzen dela zaintzea.

## 4. Estatu-estrategiaren printzipioak

---

Estatu-estrategiaren printzipioak  
**Indarkeria matxisten** aurka  
borrokatzeko laguntzen duten  
ekintzak pentsatzen direnean  
edo aldaketak proposatzen direnean  
inoiz falta ezin daitezkeen gauzak dira.

Estatu-estrategiak 8 printzipio ditu:

### Feministak

Feminismoa defendatzen  
duten pertsona,  
erakunde edo  
mugimenduak dira.

Feminismoa emakumeen  
eskubideak defendatzen  
dituen teoria politiko eta  
gizarte-mugimendua da.

Gizarte-mugimendua da  
gizartea aldatzeko  
antolatuta dauden  
pertsona askok osatzen  
dutelako.

Teoria politiko da  
gizarte bidezkoago eta  
errespetuzkoagoa  
nolakoa izan behar den  
proposatzen duelako.





## 1. Giza eskubideak

### Indarkeria matxistak

giza eskubideak  
**urraketa** dira.

Horregatik, Espainiak

**indarkeria matxistei** erantzun behar  
die.

**Europar Batasuneko** herrialdeek

eta erakundeek

arau eta hitzarmenak dituzte

erakundeek

hau garrantzitsua dela esaten dutenak

eta herrialdeek

legeak eta Estatu-estrategia bezalako  
planak sortu behar dituztela.

### Urratzea

Urratzea urratu hitzetik  
dator eta mintzea edo ez  
betetzea esan nahi du.

### Europar Batasuna

Europar Batasuna  
Europako 27  
herrialderen batasuna  
da.

Gobernu bat eta lege  
propioak ditu.  
EB letrekin ere  
izendatzen da.

Espainia Europar

## 2. Eredu feminista eta parte-hartzea

Feminismoaz ari garenean  
zenbait gauzez ari gara.

Hots:

- Feminismoak, teoria zientifiko gisa,  
desberdintasunen  
berri ematen du



defendatzen duen gizarte-mugimendua.

- Feminismoak, mugimendu politiko eta erakunde mugimendu gisa, emakume eta gizonen arteko berdintasuna defendatzen du.

Erakunde **feministek**  
eta **indarkeria matxisten**  
emakume **bizirauleek**  
planen diseinuan parte hartu behar dute  
eta administrazio publikoei haien egoera azaldu.

Hau garrantzitsua da benetan lagunduko dieten lege eta tresnak egiteko.

Pertsona eta erakunde hauek  
Estatu-estrategia egiteko parte hartu zuten.

### 3. Desberdintasun eta ezaugarri ezberdinak

---

Emakumeek zailtasun desberdinak dituzte  
eta honek diskriminazio egoerak sortzen ditu.

Hainbat gauzagarriko diskriminazioa dago,  
esaterako:

- Sexua.



- Erlijioa.
- Arraza.
- Adina.
- Desgaitasuna.
- Bizilekua.

Batzuetan, zailtasun hauek aldi berean gertatzen dira.

Estatu-estrategiak

**indarkeria matxistak** jasan ditzaketen emakumeen aniztasuna eta diskriminazio egoera desberdinak kontuan hartzen ditu.

## 4. Arduraduna

---

Espainiaren ardura da:

- **Indarkeria matxistak** ekiditea.
- Indarkeria matxista egoera bat dagoenean ikertzea.
- Eta emakumeen aurkako indarkeria zigortzea.

## 5. Konponketa

---

**Indarkeria matxistak** eragiten dituzten kalteak **konpontzen** lagunduko duten tresnak eta politikak sortu behar dira.



## 6. Estatu-estrategia nola betetzen den azaltzea

---

Estatu-estrategiak sistema bat dauka helburu eta konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko.

## 7. Eskumenak errespetatzea

---

Espanian autonomia-erkidegoek egiten dituzten politika eta legeak daude eta Espainiako Gobernuak egiten dituen beste batzuk.

Hau da, autonomia-erkidegoek eskumen batzuk dituzte eta Espainiako Gobernuak beste batzuk.

Estrategia honek proposatzen dituen ekintzak bakoitzaren eskumenak errespetatzen ditu.

## 8. Finantza konpromisoa

---

Estatu-estrategiaren azken printzipioa finantza konpromisoa da.

Honek esan nahi du garrantzitsua dela Administrazio Publikoek Estrategia honen ekintzak betetzeko



konpromisoa hartzen dutela  
eta egin ahal izateko dirua jartzen dutela.

## 5. Estatu-estrategiaren neurriak

---

Estatu-estrategiak administrazio guztiek jarraitu beharreko emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko neurriak barne hartzen ditu.

Orain neurri garrantzitsuenak kontatuko dizkizugu.  
Neurriak gaika banatuta daude,  
helburu hauek ditu:

1. Ardurak eta betebeharrak.
2. Sentsibilizatzea, prebenitzea eta ikustea.
3. Babesa, segurtasuna, arreta eta konponketa.
4. Koordinazioa.

### 1. gaia Ardurak eta betebeharrak

---

1. gaiak administrazio  
eta elkarteei  
emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatzeko  
lege eta baliabideak ezagutzen laguntzen die.

Estrategiak honako hauetarako balio du:

- Biktima diren emakumeei



- laguntzen dizkieten lege eta arau berriak barne hartzeko.
- Erakunde publikoek biktimak hobeto artatzeko.
- Administrazioek laguntzeko egiten dutena ebaluatzea eta konpontzea. hobeto artatzeko.
- **Indarkeria matxistaren biktimekin** eta **bizirauleekin** lan egiten duten elkarteei laguntzea erakunde indartsuagoak izateko.
- Ideia feministak ezagutzera ematea.

## 1. gaiko neurri garrantzitsuak

---

1. Indarkeria matxista kasu guztietan arauak aplikatzen ditugula ziurtatzea.
2. Espainian genero-indarkeriaren aurkako Estatu Ituna betetzen dugula ziurtatzea. Estatu Ituna alderdi politiko guztiek indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko egin zuten hitzarmen bat da.
3. Indarkeria matxistaren aurka borrokatzen diren erakundeak indartsuago egitea.



4. **Indarkeria matxisten** aurkako politikak ebaluatzea hauek hobetzeko.
5. Mugimendu feminista, emakumeen eta giza eskubideen elkarteak babestea indartsuago izateko.

## 2. gaia Sentsibilizatzea, prebenitzea eta ikustea

---

**Indarkeria matxisten** aurka borrokatzeko

3 gauza egin behar ditugu:

- Sentsibilizazioa,  
indarkeria matxistaren berri ematea da jendeak zer den jakiteko eta hau ezabatzen laguntzeko.
- Prebentzioa,  
**indarkeria matxista** gehiago ez egoteko gauzak egitea da.
- Eta hautematea,



zein emakume diren indarkeria matxistaren biktima jakitea da, hauei laguntzeko.

Oso garrantzitsua da honako hauei gizon eta emakumeek eskubide berdinak dituztela erakustea:

- Haurrei txikitatik.
- Lanbide bat ikasten dutenei.
- Mediku eta gizarte langileei.

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunekin bukatzeko honako hauen laguntza behar dugu:

- Hezkuntza zentroena.  
Esaterako, eskola eta unibertsitateak.
- Komunikabideena.  
Esaterako, telebista, irratia eta egunkariak.
- **Berdintasunezko maskulinitateetan** sinesten duten gizonena.





## 2. gaiko neurri garrantzitsuak

---

1. Honako datu hauek hobeto ezagutzea:
  - **Indarkeria matxisten biktima** guztiak.
  - **Indarkeria matxisten biziraule** guztiak.
  - **Indarkeria matxista** mota guztiak
2. Gizartea aldatzea  
giza eskubideak errespetatzeko.  
eta **interseksionalitatea** kontuan izatea.
3. Komunikabideekin eta pelikula eta iragarkiak  
egiten dituzten enprekin lan egitea  
**indarkeria matxistaren** aurka laguntzeko.
4. Emakumeen aurkako **indarkeria digitalen** aurka  
borrokatzea.
5. **Indarkeria matxisten** aurka hezte  
bizitzako etapa guztietan.
  
6. **Indarkeria matxisten**  
prebentzioa eta hautematea hobetzea  
medikuaren kontsultan eta gizarte-zerbitzuetan.
7. **Berdintasunezko maskulinitateak**  
dituzten gizonekin lan egitea  
**indarkeria matxistak**  
ezabatzen laguntzeko.
8. Langileak trebatzea  
indarkeria matxistaren biktimei



hobeto laguntzeko.

9. Indarkeria matxista prebenitzeko gauza gehiago egitea.

### 3: gaia Babesa, segurtasuna, arreta eta konponketa.

---

**Indarkeria matxisten** biktimek arreta eta salaketa zerbitzuak daude.

Baina, honako arrazoi hauengatik, ez dituzte beti erabiltzen:

- Lotsa izan dezakete.
- Beldurra izan dezakete.
- Ez dituzte haien eskubideak ezagutzen.
- Ez dituzte zerbitzu hauek ezagutzen.

Garrantzitsua da **indarkeria matxistaren** biktimek zerbitzuak ezagutzea honako hauek egin ahal izateko:

- Informatu, laguntza eta arreta jaso.
- Indarkeria egoerak gelditu ahal izateko eta okerrera joan daitezen ekiditeko.
- Haien eskubideak ezagutu ahal izateko.
- Kaltea konpondu ahal izateko.

### 3. gaiko neurri garrantzitsuak

---

#### 1. Indarkeria matxista mota guztien



biktimen eskubideak aitortzea.

**2.** Baliabide egokitu eta irisgarriak sortzea.

**3.** Baliabideak biktima guztiei heltzea.

**4.** Biktima eta **bizirauleak**

honako hauetara irisgarritasuna izatea:

- Bizitzeko leku bat.
- Lanarekin lotutako eskubideak.
- Eta autonomiaz bizitzeko

baliabide propioak eta behar adina diru  
izateko gaitasuna izatea.

**5. Indarkeria matxisten** biktimentzat  
babesa eta segurtasuna.

**6.** Jasandako kaltea konpontzea.

**7. Indarkeria bikarioa** dagoenean neurriak izatea.

#### 4: gaia Koordinazioa.

---

**Indarkeria matxisten** biktimak joaten diren  
instituzio eta zerbitzuetako langileak  
eta indarkeria hauek gauzatzen dituzten pertsonak  
trebatzea garrantzitsua da.

Gainera, zerbitzu eta instituzioak ere  
koordinatuta egon behar dira



honako hauek lortzeko:

- Arretaren kalitatea hobetzea.
- Indarkeria hauek egiten dituzten pertsonen kalte guztia egoztea.
- **Indarkeria matxistak** jasaten dituzten emakumeen seme-alabek arreta ona izatea.
- **Berbiktimizazioa** ez egotea, hau biktima batek jasaten duen mina da mediku, polizia, abokatu eta epaileen aurrean erasoak kontatu behar duenean.

Pertsona hauek ez diote biktimari minik egin nahi, baina min egiten diote, batez ere psikologikoa.

#### 4. gaiko neurri garrantzitsuak

---

1. Erakunde eta instituzioak koordinatuago egotea.
2. **Berbiktimizazioa** zer den azaltzea identifikatzen jakiteko eta horren aurka borrokatzeko.



## Glosarioa

---

### Glosarioaren aurkibidea

<b>S</b> letrarekin hasten diren hitzak .....	24
<b>Sexu-abusua.</b> .....	24
<b>Zelatatzea.</b> .....	24
<b>Kaleko jazarpena.</b> .....	25
<b>Sexu arrazoiengatiko jazarpena.</b> .....	25
<b>Sexu-jazarpena</b> .....	26
<b>Sexu-erasoa.</b> .....	26
<b>Z</b> letrarekin hasten diren hitzak .....	27
<b>Ziberindarkeria</b> .....	27
Baimena .....	30
<b>D</b> letrarekin hasten diren hitzak .....	30
Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Delegazioa .....	30
Sexu arrazoiengatiko eta genero arrazoiengatiko gorroto diskurtsoak. ....	30
<b>F</b> letrarekin hasten diren hitzak .....	31
Feminizidioa. ....	31
Feminizidioa bikotean edo bikote ohian. ....	31
Familia barruko feminizidioa.....	32
Feminizidio sexuala.....	32
Feminizido soziala. ....	33
Feminizidio bikarioa .....	34
<b>G</b> letrarekin hasten diren hitzak .....	34
Generoa.....	34



Grooming.....	35
<b>I</b> letrarekin hasten diren hitzak.....	35
Interseksionalitatea .....	35
<b>M</b> letrarekin hasten diren hitzak.....	36
Maskulinitate berdinzaleak .....	36
Behartutako ezkontza .....	37
Emakumeen genitalen mutilazioa.....	37
<b>S</b> letrarekin hasten diren hitzak .....	38
Gurasoen Alienazio Sindromea (SAP).....	38
Sumisio kimikoa.....	40
<b>T</b> letrarekin hasten diren hitzak .....	40
Sexu esplotaziorako.....	40
emakume eta nesken salerosketa. ....	40
<b>B</b> letrarekin hasten diren hitzak .....	41
Indarkeria matxistaren biktima eta bizirauleak.....	41
Bigarren mailako biktimizazioa edo berbiktimizazioa. ....	41
Bortxaketa. ....	42
Substantziek eragindako indarkeria .....	42
Sexuagatiko emakumeen aurkako indarkeria. ....	43
Indarkeria kulturala. ....	43
Genero-indarkeria. ....	44
Indarkeria digitala. ....	45
Etxeko indarkeria. ....	48
Indarkeria ekonomikoa.....	49
Teknologia bidezko indarkeria.....	50
Indarkeria fisikoa. ....	53



Indarkeria instituzionala. ....	53
Indarkeria matxista. ....	54
Eguneroko indarkeria matxistak.....	55
Emakumeen aurkako indarkeria politikoa. ....	56
Indarkeria psikologikoa. ....	56
Sexu indarkeria.....	57
Indarkeria sinbolikoa.....	58
Indarkeria bikarioa. ....	59
Sexu eta ugalketa osasunaren gaineko indarkeriak. ....	60



## S letrarekin hasten diren hitzak

---

### **Sexu-abusua.**

---

Askatasun Sexualaren legearen aurretik,  
legeak sexu-abusua eta sexu-erasoa desberdintzen zituen.

Sexu-abusua zen norbaitek  
zurekin kontaktu sexuala zuenean  
zure baimenik gabe,  
baina indarkeria eta mehatxuak erabili gabe.

### **Zelatatzea.**

---

Norbait zuri segika ibiltzen denean  
kontaktu sexuala izateko  
zuk nahi izan gabe.

Zelata internet bidez egiten denean  
ziberespioitza deitzen zaio.

Zelata  
ohiko hizkeran erabiltzen dugu,  
ez legeetan.





## **Kaleko jazarpena.**

---

Gizon batek emakume bati umiltzen edo beldurtzen dizkioten hitzak esaten dituenean da, kalean edo metroaren gisako leku publikoetan.

Kaleko jazarpena emakumea ezagutzen ez duten gizonek egiten dute eta askotan gauez gertatzen da aisialdirako lekuetan, esaterako, diskoteketan.

## **Sexu arrazoiengatiko jazarpena.**

---

Pertsona bati egiten zaion jazarpena da gizon edo emakume izateagatik.

Jazartzen duen pertsona biktima baino inportanteagoa sentitzen da eta txarto sentiarazten du.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako legeak sexu arrazoiengatiko jazarpena azaldu zuen 2007. urtean.

Legearen 7. artikuluan ikus dezakezu.



## Sexu-jazarpena

---

Sexuarekin zerikusia duen jazarpena da.  
Ekintza, iruzkin edo keinu bat izan daiteke.

Jazartzen duen pertsona  
biktima baino inportanteagoa sentitzen da  
eta txarto sentiarazten du.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako legeak  
2007. urtean azaldu zuen kaleko jazarpena.

Legearen 1. puntuaren 7. artikuluan ikus dezakezu.

## Sexu-erasoa.

---

Pertsona batek beste baten aurka  
egiten duen ekintza sexuala da,  
haren baimenik gabe.



## Z letrarekin hasten diren hitzak

---

### Ziberindarkeria

---

Internet bidezko indarkeria da.

4 ziberindarkeria mota daude:

1. Internet bidezko jazarpena.

Internet bidezko hainbat jazarpen mota daude:

- Mehatxuak.
- Zure ospea kaltetzea.
- Zure informazio pribatua erabiltzea.
- Zure identitatea lapurtzea.
- Sexua eskatzea.
- Beste pertsona batzuk zu bakarrik uztera bultzatzea.

2. Internet bidezko sexu-jazarpena.

Internet bidezko hainbat sexu-jazarpen mota daude:

- Zure baimenik gabe irudi edo bideo intimoak bidaltzearekin mehatxu egitea.  
Askotan irudi sexualak dira eta mendekua hartzeko bidaltzen dira.
- Argazki edo bideo intimoak ateratzea abisatu gabe eta baimenik izan gabe.  
eta internet bidez bidaltzea.  
Argazki edo bideo sexuala bidaltzea zure baimenik gabe, sexspreading da.



- Esplotatzea, pertsona bat mehatxatzea eta zerbait sexuala egitera behartzea. Pertsona bati haren eduki sexualak bidaltzearekin xantaia egitea. Honi sexu estortsio ere esaten zaio.
- Pertsona baten informazio pribatua internet bidez bilatzea erasotzeko eta informazio hau bidaltzearekin mehatxatzeko. Hau doxing deitzen da.
- Pertsona baten orientazio sexuala esatea haren baimenik gabe. Esaterako, gizon bat gay-a dela edo emakume bat lesbiana dela esatea. haren baimenik gabe. Hori outing deitzen da.
- Pertsona bati buruzko zurrumurruek eta iruzkin sexualak bidaltzea haren ospe edo lanari min egiteko. Hori bullying sexualizatua edo ziberbullying deitzen da.
- Zure sare sozialetan sartzea eta zure identitatea lapurtzea beste pertsona batzuekin zure komunikazioa kontrolatzeko eta min egiten dizun informazioa bidaltzeko. Honi hackeatzea deitzen zaio.



- Gizon batek argazki sexualak egiten dituenean eta emakume bati bidaltzen dizkionean honek eskatu gabe.

Gizonak

hitzordu edo mezu aplikazioen bitartez

irudiak bidaltzen ditu

emakumea gogaitzeko.

Hau ziberflashing deitzen da.

### 3. Indarkeria psikologiko digitala.

Eduki hauekin internet bidez mezuak bidaltzea:

- Hitz eta esaldi matxistak.
- Pertsona bati buruzko irain, mehatxu eta gezurrak min egiteko.
- Bere buruaz beste egitera edo bere buruari min egitera bultzatzen duten mezuak.

### 4. Ziberindarkeria ere

pertsona batek internet bidez

dirua emateko iruzur egiten dizunean da.

Ziberindarkeriari indarkeria digitala

eta teknologia bidezko indarkeria ere deitzen zaio.



## Baimena

---

Zure baimena beste bati ematea zerbait egiteko.

Zigor Kodearen 178. artikulua  
baimena zer den azaltzen du.

**D** letrarekin hasten diren hitzak

---

## Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren Delegazioa

---

Emakumeen aurkako indarkeriari  
aurre egiteko politikak  
Gobernuari proposatzeaz  
arduratzen den instituzioa da.

## Sexu arrazoiengatiko eta genero arrazoiengatiko gorroto diskurtsoak.

---

Feminismoaren, emakumeen  
eta LGTBI pertsonen aurka  
gorrotoa adierazten duen  
hitz egiteko edo idazteko modu bat da.

Zigor Kodearen 510. artikulua  
gorroto diskurtsoak azaltzen ditu.



## F letrarekin hasten diren hitzak

---

### Feminizidioa.

---

Gizon batek emakume baten dirua kontrolatzen duenean emakume izateagatik, matxismoagatik eta emakumeenganako gorrotoagatik.

Feminizidioak honelako egoeretan gertatzen dira:

1. Bikote edo bikote ohi harremanetan.
2. Sexu indarkerian.
3. Prostituzioan.
4. Sexu esplotaziorako salerosketan, hots, emakumeak engainatu eta hartzen dituztenean diruaren truke sexu-harremanak izatera behartzeko. Gero, esplotatzen dituzten gizonak diruarekin geratzen dira.
5. Beste indarkeria matxista mota batzuetan.

### Feminizidioa bikotean edo bikote ohian.

---

Gizon batek bere bikote edo bikote ohia den emakume bat hiltzen duenean.

2004. urteko genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurrien legeak bikotean edo bikote ohian feminizidio bat zer den azaltzen du.



## **Familia barruko feminizidioa.**

---

Gizon batek bere bikote edo bikote ohia haren familiako emakume bat.

Esaterako ohorezko krimen bat, gizon batek haren familiako emakume bat hiltzen duenean da, emakumearen jokabide sexualak familiaren ospeari kalte egin diola pentsatzen duelako.

## **Feminizidio sexuala.**

---

Gizon batek emakume bat hiltzen duenean egoera hauetako batean:

- Sexu-eraso batean.
- Prostituzioan.
- Sexu esplotazioan, hots, gizon batek emakume bat sexu-harremanak izatera behartzen duenean, haren baimenik gabe eta dirua irabazteko.





- Emakumeen genitalen mutilazioan, hots, emakume edo neska bati klitoria mozten diotenean. Klitoria neska eta emakumeei plazer sexuala ematen dien sexu-organoa da.
- Behartutako ezkontzan, hots, neska edo emakume bat nahi ez duen gizon batekin ezkontzera behartzen denean.

## **Feminizido soziala.**

---

Gizon batek haren bikotea edo senidea ez den emakume edo neska bat hiltzen duenean.

Esaterako, emaztearen lagun bat, lankide bat edo bizilagun bat.



## Feminizidio bikarioa

---

Gizon batek emakume baten dirua kontrolatzen duenean  
18 urte baino gehiago dituen  
beste emakume bati min egiteko.

Haurrak eta nerabeak babesteko lege organikoaren  
10. azken xedapenak  
feminizidio bikarioak zer diren azaltzen du.

## G letrarekin hasten diren hitzak

---

### Generoa

---

Gizarte batek  
emakume eta gizonenak direla pentsatzen dituen  
jokabide eta paperak dira.

Esaterako,  
gizonak lider hobeak  
eta emakumeak zaintzaile hobeak direla.



## Grooming

---

Heldu bat haur edo nerabe batekin harremanetan jartzen denean haren konfiantza irabazteko eta zerbait sexuala egiteko.

Esaterako, sexuari buruz hitz egitea, argazki intimoak bidaltzeko eskatzea edo sexu-harremanak izatea.

Grooming internet bidez egiten denean online grooming deitzen zaio.

## I letrarekin hasten diren hitzak

---

### Interseksionalitatea

---

Interseksionalitatea hainbat gauzengatik aldi berean diskriminazioa jasaten duten emakumeen egoera azaltzeko modu bat da.

Emakumeek diskriminazio gehiago jasaten dute aldi berean hainbat ezaugarri dituztenean. esaterako:

- 65 urte baino gehiago izatea.
- Desgaitasuna izatea.
- Herri txiki batean bizitzea.



- Jatorrizko herrialdea Espainia ez izatea.
- Lesbianak izatea.
- Transexualak izatea.
- Pobreak izatea.
- Drogekin edo alkoholarekin arazoak izatea.
- Kartzelan egotea.
- Etxerik ez izatea.
- Prostitutak izatea.
- Salerosketa eta sexu esplotazioaren biktimak izatea.

Estatu-estrategiak emakume guztiengan pentsatzen du,  
baina, batez ere, ezaugarri hauek dituzten emakumeengan,  
diskriminazio gehiago jasaten dutelako.

## **M** letrarekin hasten diren hitzak

---

### **Maskulinitate berdinzaleak**

---

Feministak diren

eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunean sinesten duten  
gizonen jokabidea azaltzeko modua da.

Gizon horiek emakumeen aurkako indarkeriaren  
aurka borrokatzen laguntzen dute.



## Behartutako ezkontza

---

Neska edo emakume bati behartzen zaionean nahi ez duen gizon batekin ezkontzera behartzen denean.

Askotan oso gaztea den neska bati behartzen zaio ezkontzera.

## Emakumeen genitalen mutilazioa.

---

Klitori zati bat edo klitori osoa moztea da klitoria mozten diotenean.

Klitoria neska eta emakumeei plazer sexuala ematen dien sexu-organoa da.

Batzuetan emakume eta nesken genitaletako beste parte batzuk moztu edo josten dira.



## S letrarekin hasten diren hitzak

---

### Gurasoen Alienazio Sindromea (SAP).

---

Haur batek  
bere amak aitaren aurka jartzen diolako  
aita arbuiatzen duela dioen  
teoria faltsua da.

Teoria faltsu honek, amari haurrak kentzearekin  
mehatxu egin behar zaiola esaten du  
gurasoen alienazio sindromea sendatzeko.

2008. urtean  
Richard Garner psikiatrak asmatu zuen teoria hau  
frogazientifikorik izan gabe  
eta azalpen faltsuekin.

Richard Garnerrek  
haurrek sexu-abusuarekin gurasoen banantzearekin  
baino gutxiago sufritzen dutela  
eta emakumeei jotzea gustatzen zaiela ere esan zuen.



Teoria honek honako ondorio hauek izan ditu:

- Ama askok ez dituzte genero-indarkeriatik haien bikoteak salatu haien seme-alaben kustodia ez galtzeko.
- Seme-alaba askok helduenganako konfiantza galdu dute babesten ez dietelako.

Haurrak eta nerabeak babesteko legeak indarkeriaren aurrean teoria hau saihestea eskatzen du.

Batzuetan, Espainian, Gurasoen alienazio sindromea erabiltzen da oraindik. Horregatik, haur batzuk tratu txarrak ematen dituzten gurasoekin bizi dira.

Hori haurren eskubideei buruzko hitzarmenaren aurka doa, hau da, haurren eskubideak babesten dituen legearen aurka.



## Sumisio kimikoa.

---

Gizon batek emakume bati egiten dion sexu-eraso bat da emakumea jabetu gabe.

Biktima ez da jabetzen,  
gizonak substantzia bat eman diolako  
ezer egin ahal ez izateko.

Sumisio kimikoari  
substantziek eragindako indarkeria ere deitzen zaio.

## T letrarekin hasten diren hitzak

---

### Sexu esplotaziorako emakume eta nesken salerosketa.

---

Emakume eta neskak bereganatu  
eta leku batera eramaten dituztenean da  
diruaren truke sexu-harremanak izatera behartzeko.

Gero, esplotatzen dituzten gizonak  
diruarekin geratzen dira.

Emakumeak leku horretara eramateko  
engainatu, bahitu edo mehatxatu egiten dituzte.





Palermoko protokoloak  
emakume eta nesken salerosketa zer den azaltzen du  
emakume eta nesken salerosketa.

**B** letrarekin hasten diren hitzak

---

## **Indarkeria matxistaren biktima eta bizirauleak.**

---

Biktimak gizon batek min egiten dien  
emakume eta haien seme-alabak dira.

Biktima bizirauleak  
indarkeria egoeratik atera diren  
emakume eta haien seme-alabak dira.

## **Bigarren mailako biktimizazioa edo berbiktimizazioa.**

---

Biktima batek jasaten duen kaltea da  
mediku, polizia, abokatu eta epaileen aurrean  
erasoa kontatu behar duenean.

Pertsona hauek ez diote biktimari minik egin nahi,  
baina min egiten diote, batez ere psikologikoa.  
Biktimaren mina txikiagoa da honako kasu hauetan:

- Biktimari hobeto tratatzen zaionean.
- Biktimak abokatu eta epaileekin  
gutxiagotan hitz egin behar duenean.



- Biktimak osasun-azterketa gutxiago dituenean.
- Biktimak laguntzen dion pertsona bat duenean.
- Biktima artatzen duten pertsona eta zerbitzu guztiak koordinatuta daudenean.

## **Bortxaketa.**

---

Sexu-eraso bat da non hau gertatzen den:

- Gizonak zakila biktimaren baginan, uzkiean edo ahoan sartzen du.
- Gizonak bere gorputz-atal bat edo beste gauza bat biktimaren bagina edo ahotik sartzen du.

Sexu askatasunaren berme integralari buruzko legeak bortxaketa bat zer den azaltzen du 179. artikuluan.

## **Substantziek eragindako indarkeria**

---

Gizon batek emakume bati egiten dion sexu-eraso bat da emakumea jabetu gabe.

Biktima ez da jabetzen, gizonak substantzia bat eman diolako ezer egin ahal ez izateko.

Substantziek eragindako indarkeriari sumisio kimikoa ere deitzen zaio.



## **Sexuagatiko emakumeen aurkako indarkeria.**

---

Emakume eta nesken aurkako indarkeria oro da emakume izateagatik.

Istanbuleko Hitzarmenak azaltzen du emakumearen aurkako indarkeria sexuagatik dela.

## **Indarkeria kulturala.**

---

Ikusten ez den indarkeria bat da, emakumeei min fisikorik egiten ez diena, baina, emakumeak gizonak baino diskriminazio gehiago jasaten jarraitzea eragiten duena.

Askotan indarkeria kulturala honako gauza hauetan dago:

- Hitz egiteko moduan.
- Gizarte baten ohituretan.
- Pertsonen ideietan.

Esaterako, pertsona batek amaginarreba batez barre egiteko txiste bat kontatzen duenean.

Indarkeria kulturalaren ondorioz, jende askok gizonak emakumeek baino gehiago balio dutela pentsatzen du eta hori normala dela.



Askotan pertsonak ez dira ohartzen esaten edo pentsatzen dutena emakumeen aurkako indarkeria dela.

Indarkeria kulturalak gizonak emakumeen gain botere gehiago izatea eta hori ondo ikustea eragiten du.

Indarkeria kulturala gizarte guztian gertatzen da eta emakume guztientzako txarra da.

Indarkeria kulturalari indarkeria sinboliko ere deitzen zaio.

### **Genero-indarkeria.**

---

Gizon batek bere bikote den edo bikote izan den emakume baten aurkako indarkeria da.

2004. urteko genero-indarkeriaren aurkako genero-indarkeriaren aurka dio indarkeria bikarioa ere genero-indarkeria dela.



Indarkeria bikarioa gizon batek emakumeak asko maite duen pertsona bati min egiten dionean da, emakumeari min egiteko.

Esaterako, gizon batek bere seme edo alaba hiltzen duenean.

## Indarkeria digitala.

---

Internet bidezko indarkeria da.

4 indarkeria digital mota daude:

### 1. Internet bidezko jazarpena.

Internet bidezko hainbat jazarpen mota daude:

- Mehatxuak.
- Zure ospea kaltetzea.
- Zure informazio pribatua erabiltzea.
- Zure identitatea lapurtzea.
- Sexua eskatzea.
- Beste pertsona batzuk zu bakarrik uztera bultzatzea.

### 2. Internet bidezko sexu-jazarpena.

Internet bidezko hainbat sexu-jazarpen mota daude:

- Zure baimenik gabe irudi edo bideo intimoak bidaltzearekin mehatxu egitea. Askotan irudi sexualak dira eta mendekua hartzeko bidaltzen dira.



- Argazki edo bideo intimoak ateratzea abisatu gabe eta baimenik izan gabe. eta internet bidez bidaltzea.  
Argazki edo bideo sexuala bidaltzea zure baimenik gabe, sexspreading da.
- Esplotatzea, pertsona bat mehatxatzea eta zerbait sexuala egitera behartzea.  
Pertsona bati haren eduki sexualak bidaltzearekin xantaia egitea.  
Honi sexu estortsio ere esaten zaio.
- Pertsona baten informazio pribatua internet bidez bilatzea erasotzeko eta informazio hau bidaltzearekin mehatxatzeko.  
Hau doxing deitzen da.
- Pertsona baten orientazio sexuala esatea haren baimenik gabe.  
Esaterako, gizon bat gay-a dela edo emakume bat lesbiana dela esatea.  
haren baimenik gabe.  
Hori outing deitzen da.
- Pertsona bati buruzko zurrumurruek eta iruzkin sexualak bidaltzea haren ospe edo lanari min egiteko.  
Hori bullying sexualizatua edo ziberbullying deitzen da.



- Zure sare sozialetan sartzea eta zure identitatea lapurtzea beste pertsona batzuekin zure komunikazioa kontrolatzeko eta min egiten dizun informazioa bidaltzeko. Honi hackeatzea deitzen zaio.
- Gizon batek argazki sexualak egiten dituenean eta emakume bati bidaltzen dizkionean honek eskatu gabe.  
Gizonak hitzordu edo mezu aplikazioen bitartez irudiak bidaltzen ditu emakumea gogaitzeko.  
Hau ziberflashing deitzen da.

### 3. Indarkeria psikologiko digitala.

Eduki hauekin internet bidez mezuak bidaltzea:

- Hitz eta esaldi matxistak.
- Pertsona bati buruzko irain, mehatxu eta gezurrak min egiteko.
- Bere buruaz beste egitera edo bere buruari min egitera bultzatzen duten mezuak.

### 4. Indarkeria digitala ere bada

pertsona batek internet bidez dirua emateko iruzur egiten dizunean da.



Indarkeria digitalari ere ziberindarkeria eta teknologia bidezko indarkeria deitzen zaio.

## Etxeko indarkeria.

---

Pertsona batek beste pertsona bati familia barruan edo bizi diren etxearen barruan min egiten dionean.

Etxeko indarkeria edozein indarkeria mota izan daiteke. esaterako:

- Indarkeria fisikoa:  
Pertsona batek beste bati gorputz-atalen batean min egiten dionean. Esaterako, kolpeekin.
- Sexu indarkeria:  
Pertsona batek beste bati nahi ez duen zerbait sexuala egitera behartzen dionean. Esaterako, bere sexu organoak ukitzera behartzen dionean.
- Indarkeria psikologikoa:  
Pertsona batek beste pertsona bati ukitu gabe. Esaterako, iraineekin.





- Indarkeria ekonomikoa:  
Pertsona batek beste baten dirua kontrolatzen duenean eta ez dionean nahi duenean gastatzen uzten.  
Esaterako, ez dio ikasteko ikastaro bat ordaintzen uzten.

Istanbuleko Hitzarmenak azaltzen du etxeko indarkeria zer den 3. artikuluan.

### **Indarkeria ekonomikoa.**

---

Gizon batek emakume baten dirua kontrolatzen duenean eta ez dionean nahi duenean gastatzen uzten.  
Esaterako,  
emakume batek etxe bat duenean eta gizonak etxea saltzea eragozten dionean.

Honako kasu hauek ere indarkeria ekonomikoa dira:

- Gizonak emakumeari ikastea eragozte.
- Gizonak emakumeari lan egitea eragozte.
- Gizona emakumeak lanean irabazitako diruarekin geratzea.

Gizonak emakumearen aurkako indarkeria mota desberdinak erabiltzen ditu haren dirua kontrolatu ahal izateko.  
Esaterako, indarkeria fisikoa, indarkeria psikologikoa eta internet bidezko indarkeria.



## Teknologia bidezko indarkeria.

---

Internet bidezko indarkeria da.

Teknologia bidezko 4 indarkeria mota daude:

### 1. Internet bidezko jazarpena.

Internet bidezko hainbat jazarpen mota daude:

- Mehatxuak.
- Zure ospea kaltetzea.
- Zure informazio pribatua erabiltzea.
- Zure identitatea lapurtzea.
- Sexua eskatzea.
- Beste pertsona batzuk zu bakarrik uztera bultzatzea.

### 2. Internet bidezko sexu-jazarpena.

Internet bidezko hainbat sexu-jazarpen mota daude:

- Zure baimenik gabe irudi edo bideo intimoak bidaltzearekin mehatxu egitea. Askotan irudi sexualak dira eta mendekua hartzeko bidaltzen dira.
- Argazki edo bideo intimoak ateratzea abisatu gabe eta baimenik izan gabe. eta internet bidez bidaltzea. Argazki edo bideo sexuala bidaltzea zure baimenik gabe, sexspreading da.



- Esplotatzea, pertsona bat mehatxatzea eta zerbait sexuala egitera behartzea. Pertsona bati haren eduki sexualak bidaltzearekin xantaia egitea. Honi sexu estortsio ere esaten zaio.
- Pertsona baten informazio pribatua internet bidez bilatzea erasotzeko eta informazio hau bidaltzearekin mehatxatzeko. Hau doxing deitzen da.
- Pertsona baten orientazio sexuala esatea haren baimenik gabe. Esaterako, gizon bat gay-a dela edo emakume bat lesbiana dela esatea. haren baimenik gabe. Hori outing deitzen da.
- Pertsona bati buruzko zurrumurruek eta iruzkin sexualak bidaltzea haren ospe edo lanari min egiteko. Hori bullying sexualizatua edo ziberbullying deitzen da.
- Zure sare sozialetan sartzea eta zure identitatea lapurtzea beste pertsona batzuekin zure komunikazioa kontrolatzeko eta min egiten dizun informazioa bidaltzeko. Honi hackeatzea deitzen zaio.



- Gizon batek argazki sexualak egiten dituzenean eta emakume bati bidaltzen dizkionean honek eskatu gabe.

Gizonak

hitzordu edo mezu aplikazioen bitartez

irudiak bidaltzen ditu

emakumea gogaitzeko.

Hau ziberflashing deitzen da.

### 3. Indarkeria psikologiko digitala.

Eduki hauekin internet bidez mezuak bidaltzea:

- Hitz eta esaldi matxistak.
- Pertsona bati buruzko irain, mehatxu eta gezurrak min egiteko.
- Bere buruaz beste egitera edo bere buruari min egitera bultzatzen duten mezuak.

### 4. Teknologia bidezko indarkeria da ere

pertsona batek internet bidez

dirua emateko iruzur egiten dizunean da.

Teknologia bidezko indarkeriari ziberindarkeria eta indarkeria digitala ere deitzen zaio.



## Indarkeria fisikoa.

---

Emakumeen aurkako indarkeria fisikoa da:

- Gizon batek emakume bati min egiten dionean gorputz-atalen batean min egiten dionean. Esaterako, kolpeekin, ostikoekin edo bultzadekin.
- Gizon batek emakume bati medikuarenera joaten uzten ez dionean.
- Gizon batek emakume bat alkohola edatera edo drogatzerara behartzen duenean.

Batzuetan emakumearen etxeari edo beste gauza batzuei ere kalte egiten die.

## Indarkeria instituzionala.

---

Administrazio publikoan lan egiten duten pertsonak emakume bati min egiten dienean hari laguntzen ez diotelako.

Esaterako, epaile batek indarkeria matxistaren biktima bat ondo babesten ez duenean.

Epaileek, medikuek edo poliziak emakumeak babesten ez dituztenean, ez dituzte haien eskubideak errespetatzen



eta berbiktimizatzen dituzte.

## **Indarkeria matxista.**

---

Gizon batek emakume edo neska bati egiten dion mina da.

Indarkeria matxista

fisikoa, sexuala, psikologikoa edo ekonomia izan daiteke.

Indarkeria matxista da ere gizon batek:

- Emakume bat mehatxatzen duenean.
- Emakumea egin nahi ez duen zerbait egitera behartzen duenean.
- Emakume bat bahitzea eta nahi duen lekura joaten uzten ez dionean.

Indarkeria matxista erabiltzen dugu

glosario honetan datozen

emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei buruz hitz egiteko.

esaterako:

- Zure bikote edo bikote ohiaren indarkeria.
- Feminizidioak.
- Behartutako ezkontzak.

Indarkeria matxistak eta emakumeen aurkako indarkeriak

esanahi bera dute Estatu-estrategian.

Testuak emakume guztiei buruz hitz egiten du.



## Eguneroko indarkeria matxistak.

---

Askotan egunero  
emakumeek jasaten dituzten  
jokabide, hitz eta keinu matxistak dira.

Jende askok normala dela pentsatzen du  
eta ez dira ohartzen matxismo mota bat dela.

Leku guztietan gertatzen dira,  
esaterako, kalean, lanean  
eta etxean.

Esaterako, eguneroko indarkeria matxista bat  
emakume eta gizon batek  
jattetxe batean jaten dutenean eta  
zerbitzariak gizonezkoari berak ordaintzeko  
kontua ematen dionean da.

Eguneroko indarkeria matxistak  
lehen mikromatxismo deitzen ziren,  
eta matxismo txikiak esan nahi du.

Baina, egun, eguneroko indarkeria matxista deitzen zaio  
eguerokotasunean gertatzen den  
matxismo mota garrantzitsu bat delako.



Luis Boninok asmatu zuen mikromatxismo hitza  
1991. urtean.

Claudia de la Garza eta Eréndira Derbezek  
diote hobe dela eguneroko indarkeria matxistei buruz hitz egitea.  
2020an liburu bat idatzi zuten  
eta eguneroko indarkeria matxistak emakumeentzako  
ondorio oso larriak dituztela esan zuten.

### **Emakumeen aurkako indarkeria politikoa.**

---

Gizonek emakumeei politikan parte hartzen  
uzten ez dietenean.

Esaterako, kargu politikorik izan ezin dutenean.

Gizonek emakumeei hainbat modutan egiten diete min  
politikan ez parte hartzeko.

Esaterako, mehatxu

bortxatu edo erail egiten dituzte.

### **Indarkeria psikologikoa.**

---

Gizon batek emakume bati min egiten dionean  
ukitu gabe.

Esaterako, gizonak:

- Emakumea iraintzen duenean.
- Iseka egiten dionean.





- Baliorik ez duela esaten dionean.
- Emakumeari haren familia edo lagunak ikusten uzten ez dionean.
- Beldurra edo lotsa sentiarazten dionean.

Indarkeria psikologikoan, gizonak:

- Emakumea mehatxatzen du.
- Zelatatzen du.
- Emakumeari berak esaten duena egitera behartzen du.
- Emakumeari ez dio jaramonik egiten.

## Sexu indarkeria

---

Gizon batek emakume bat zerbait sexuala egitera behartzen duenean eta emakumeak nahi ez duenean.

Sexu indarkeria nonahi ematen da, esaterako, etxeetan, kalean edo interneten.

Zigor Kodeak delitu diren sexu indarkeriak azaltzen ditu. esaterako:

- Sexu-erasoa.
- Emakumeen genitalen mutilazioa.
- Behartutako ezkontza.



- Sexu-jazarpena.
- Sexu esplotaziorako salerosketa.

Sexu indarkeria interneten ere gertatzen da.  
esaterako:

- Sexu indarkeria azaltzen diren bideoak internet bidez bidaltzea.
- Bideo horietan azaltzeko baimena eman ez duten pertsonak ageri diren pornografia.
- Haurrak azaltzen diren pornografia.
- Internet bidezko xantaia sexualak.

## **Indarkeria sinbolikoa.**

---

Ikusten ez den indarkeria bat da,  
emakumeei min fisikorik egiten ez diena,  
baina, emakumeak gizonak baino diskriminazio gehiago  
jasaten jarraitzea eragiten duena.

Askotan indarkeria sinbolikoa honako hauetan dago:

- Hitz egiteko moduan.
- Gizarte baten ohituretan.
- Pertsonen ideietan.

Esaterako, pertsona batek amaginarreba  
batez barre egiteko txiste bat kontatzen duenean.

Indarkeria sinbolikoak eragiten du jende askok pentsatzea



emakumeek baino gehiago balio dutela pentsatzen du eta hori normala dela.

Askotan pertsonak ez dira ohartzen esaten edo pentsatzen dutena emakumeen aurkako indarkeria dela.

Indarkeria sinbolikoak eragiten du gizonek botere gehiago izatea eta hori ondo ikustea eragiten du.

Indarkeria sinbolikoa gertatzen da gizarte guztian gertatzen da eta emakume guztientzako txarra da.

Indarkeria sinbolikoari indarkeria kulturala ere deitzen zaio.

### **Indarkeria bikarioa.**

---

Indarkeria bikarioa gizon batek emakumeak asko maite duen pertsona bati min egiten dionean da, emakumeari min egiteko.

Askotan indarkeria bikarioa gizon batek haren seme edo alabari min egiten dionean da.

Baina, indarkeria bikarioa



gizon batek emakumearekin bizi diren  
adineko pertsoneri eta desgaitasuna duten pertsoneri  
min egiten dienean da ere.

Muturreko indarkeria bikarioa  
gizon batek asko maite duen pertsona bat  
hiltzen duenean da,  
esaterako, haren seme edo alaba.

## **Sexu eta ugalketa osasunaren gaineko indarkeriak.**

---

Sexu eta ugalketa osasunaren gaineko indarkeria mota  
asko daude.

esaterako:

- Behartutako antzutzea,  
emakume bat ebakuntza bat egitera derrigortzea da  
seme-alabak ez izateko.
- Behartutako abortua,  
emakume bat abortatzera derrigortzea da.
- Emakume bati abortatzea eragozte.

Emakumearen aurkako Diskriminazioa Ezabatzeko  
Batzordearen arabera,  
indarkeria mota hauek batzuetan  
tortura mota bat izan daitezke.

NIPO: 048-23-030-4

<https://cpage.mpr.gob.es/>